

Martin Ugalderi mila esker

Tomas Angel Gonzalez

Euskaldunon Egunkaria, 1997-10-14: 2.

"Rikardo Arregi kazetaritza sariko epaimahiak, hainbat aukera aztertu eta gero, ahobatez erabaki du aurtengo ohorezko aipamena Martin Ugalde jaunari egitea".

Horrela hasten da orain dela bi egun jaso nuen Glosak liburua, Angel Lertxundik idatzita eta Martin Ugalderi eskainita.

Ezusteokan harrapatua, ez nuen espero, irakurri ondoren ohartu naiz Martin Ugalderi nire partetik eskerrak, beroenak, eman behar dizkiodala, berak egindako lanagatik eta berarekiko nigan sortutako zirrara.

Euskaingintzaren munduan ezaguna dugun Martin Ugalderi, nire ustetan, izugarritzko eskertasun aitortu behar zaio. Hura bai jatorra eta gurea dela. Honek, zentzu batean, ez dauka parekorik. Nik esan nahi dudana da bere lana eta bere biografian zehar halako ontasun (zentzu literal batean) nabaritu dudala. Gure munduan hain urria den ezaugarri honekin bizi dela eta ironia lagun egokitu zaion sofrimendua bere idazlanetan onginahi bilakatuta ikustera ematen digula. Gure Euskal Herri honetan idazle batzuk dauzkagu, haien artean oso onak, baina oraindano berari bakarrik antzematen diot kutsu hori. Nik eredu gisa hartzen dut bere ibilbidea eta maiz basamortu bezalakoa izan daitekeen bizitza honetan harengandik hartu ditudan erreferentziek aurrera jarraitzeko kemena ematen didate.